

...eta
Kitito!

2017-1-27

1.001 zkia.

Elgetaraino
“eszenatokiak
erakarrita”



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



La Salle

Eibar

AURREMATRIKULA ZABALIK 2017-2018 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era
(biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA
eta DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA**

**La Salle Isasi
eta Azitain
Ikastetxeetan**



www.etakitto.eus



Sanblas ikastaroetan izena emateko azken egunak

2017-01-23 12:01 pm

Aste honetako eguen eta zapatuan egingo diren San Blas ikastaroetan izena emateko azkeneko egunetan sartu gara, baina oraindik lekua badago bi saloetarako. Lehenengo, eguenekoa, elebidun izango da, arratsaldeko 19:00etan Portaleiko sukaldean,...

Gehiago irakurri



Debabarrena mailako galdeketa aurkeztu du Gure Esku Dagok

2017-01-23 10:38 am

Malatzaren 7an Debabarrenean egingo den herri galdeketa aurkeztu zuen zapatuan Gure Esku Dago ekimenak Portalean. Ekitaldian ekimeneko arduradunek esandakoaren arabera, "herri galdeketa prozesua antolatzeak beharra eta konpromisoa ere eskatzen..."

Gehiago irakurri



"Eibar aldeko euskara hiztegia" argazki digital lehiaketa abiatu dute

2017-01-24 12:08 pm

Udaiak, Udai Euskaitegiarekin eta AEK euskaitegiarekin lenkideztan, "Eibar aldeko euskara hiztegia" argazki digital lehiaketa du. Antolatzaileek azaldu dutenez, "Eibar" euskara hiztegiiko berba bat, eozelín, on irudikatzen...

Gehiago irakurri



Waterpoloko Euskal Herriko Kopako txapela Urbateko nesketzat

2017-01-24 10:49 am

Denboraldi honetan debutatu eta lau hilabetera eskuratu du Urbat 3H waterpoloko nesken taldeak bere lehen txapela. Asteburuan Jokaturako Kopako azken fasean eibartarrek 9-3 irabazi zieten CD Bilbaoko ordezkariel finalurrekoan eta, behin finalen,...

Gehiago irakurri

HERRIKO albisteak



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belauztegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)

eskutitzak

– Santa eskean ...eta kitto!-rekin –

...eta kitto! Euskara Elkartea otsailaren 4rako, zapatua, antolatu duen "santa eskean" parte hartzeko deia egin nahi dizue eibartar guztiei. Gure ohitura zaharrak berreskuratu eta indartzeko asmoarekin kalera irtengo gara Santa Agedako kantuak abestera zapatu eguerdian, 12:00ak aldera. Aurrez, baina, ensaio txiki bat egingo dugu ...eta kitto!-n bertan, 11:00etan.

Estaziño, Ibarkurutzeta eta Urkizu inguruan jardungo dugu kantuan, eta ondoren, ...eta kitto!-n elkartuko gara berriro mokadutxo bat jateko. Baserritar jantzia (zapia edo txapela izan daiteke) makila eta umorea, besterik ez dugu beharko. Animatu eta etorri ...eta kitto!-rekin batera "santa eskea" ospatzera.

...eta kitto! Euskara Elkartea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LEPAKA.- Lepoan eraman. "Lepaka beti gora, mardotu dittue goiko lurak".

LEPATSU.- Lepokerra, konkortua. "Jaiotzatik zan lepatsua".

astean esanak

"Futbola gero eta aspergarriagoa ari da bihurtzen eta neurriak hartu behar dira suspertzeko. Zergatik ez da joko kanpoko kentzen? Partiduek gero eta antz handiagoa dute eskubaloiarekin. Aldi baterako egozteak mesede egingo liokete. Zergatik ez belar hockey-an arrakasta handiz erabiltzen den shoot out delakoa penaltiaren ordezt? Eta zergatik ez hutsarteak, protestak kapitainek bakarrik egitea, jokalariek egin dezakeen falta kopurua mugatzea, hau da, saskibaloian bezala, bost falta eta kalera"

(MARCO VAN BASTEN, FUTBOLARI-OHIA)

"Turkia da gaur egun munduan errefuxiatu gehien dituen lurraldea, Pakistan, Libano, Etiopia, Jordania eta Iranen aurretik. Alemania hamargarren postuan egongo da, gutxi gorabehera, gehien jasotzen dituen ospea badu ere. Jakina, ez da egia. Europar Batasunak, gainera, kanpoko muga bat sortu du, eta Espainiak, esaterako, poliziak eta militarrek kokatu ditu Afrika Erdialdeko Errepublikan eta Burkina Faso-n horrelako jendeari pasatzen ez lagatzeko. Hori legez kontrarioa da, ordena publikoko indar horiek ezin direlako euren herrialdetik irten. Mugak jarri ditugu gure mugetik at"

(ARCADI OLIVERES, GIZA EKINTZAILEA)

"Europa periferia izandakoa dugu aurretik, eta izango da berriro ere. Historia ekialderantz joan da beti: Alejandro ez zen Mendebaldera etorri, erromatarrek Pertsia bai ordea. Barkaezina da europar gehienok ez jakitea Txinako enperadore handienaren izena, edo idazle arabiar batena, edo Errusiako gaur egungo abeslari batena. Historia beste modu batera jakinarazi behar zaigu, kristautasunetik, gurutzadetik, 30 Urteko Gerratik eta Iraultza Industrialetik kanpo. Zergatik irakasten da grekera eta latina eta ez sanskritoa eta txinera? Ispiluari begira gaude beti, zerk inguratzen gaituen jakin gabe"

(PETER FRANKOPAN, HISTORIAGILEA)



IMANOL MAGRO

“Astelehen goibela”

Duela bi aste Blue Monday igaro zen, astelehen goibela alegia. Psikologo anglosaxoien ustez urtarirleko hirugarren astelehena da egunik tristeena. Halakoak ez ditut sinesten, baina egun hartan Eibarren bi pertsonak bere buruaz beste egin zutela jakiteak barrenak nahastu zizkidan. Beti iruditu zait Eibarren suizidio kasu sobrerrepresentazioa dagoela. Erraz gogoratzen ditut azken urteetan erabaki hori hartu duten sei-zortzi pertsona. Ez ditut estatistikak ezagutzen, baina ziur nago batez bestekotik gora gabiltzala, eta azalpen soziala baduela. Suizidioa tristeziarekin lotu izan dut nik, biak tabuak baitira. Tristezia ezkututzen da kudeatzea zaila delako. Triste egotea gaizki ikusia dago, zerbait itsusia edo porrot pertsonala bailitzan. Triste dagoenari “ez egon horrela” edo “benga, animatu” esaten diogu; tristezia hori sentitu, barneratu eta aztertu nahi izatea lotsatzekoa balitz bezala. Kasua larritzen denean pilulak iristen / irensten dira, tristezia patologizatuz, eta oso triste egotea gaixotasun bilakatzen da. Pentsatu nahi dut tristezia ez dela norberaren buruaz beste egiteko arrazoi bakarra. Denok ditugu ilunpeak buruan, eta guztiak ez dira berdinak. Baina tristeziarekin dugun harremana birpentsatzeak ziur lagunduko ligukeela. Nik ez dut konponbide magikorik, baina gaia buruan izan dut bueltaka azken asteetan eta orain zuri pasa dizut irakurle. Tristeziari buruz gero eta gehiago hitz eginda tabua atzean utziko dugu, eta, agian, norbaiti lagunduko diogu.

Museuaren 10 urtiak ospatu zittuen zapatuan



Juan Luis Agirrek hainbat pieza jo zittuan. Maialen Belaustegi

Eibarko Armagintzaren Museuak 10 urte bete dittuala eta, horren harira aurkezpen berezixa hartu eban aurreko zapatuan: 100 bat lagun alkar-tu zittuan ekitaldixan Eibarko Museuak bere sorreratik gaur egunera arte izan daben billa-kaeria gogora ekarri eben eta, horrekin batera, hamarkada osua laburbiltzen daben bi-deuaren proiektiñua eskindu eben. Ekitaldixa biribiltzeko, sasoi batian gure herrixan egin zan Helmholtz organuarekin hainbat pieza eskindu zittuan Juan Luis Agirrek.



autobus geltokixa Ego-Gaiñen segitziaren alde azaldu da, udalaren ikerketiaren arabera. Gaiñerakuak beste toki batzuk proposatu dittue: Matsarixa (%10) eta Errebal-San Agustín (%1); %3k tokiz aldatzia komeni dala diñue, baiña ez dakixe nora.

Pagatxakuak Arte Ederren Museuan egon ziran

Pagatxa emakumien alkarte-kuak Bilbora jua dira oingo astian, Arte Ederren Museora bisitan. Eguaztenian egin eben urteeria zala eta, oinguan be talde politta alkar-tu zan erre-tratuan ikusi zeinkien moduan. Bisitan juandakuak, Museua-ren betiko bilduma ikustiaz gain, oin momentuan obra gonbidatua dan Salzilloren jaiotzarekin eta “Ardoaren Kultura”, Vivanco bildumako grabatuaren maisuen lanekin gozatzeko aukeria be euki eben.



Aurrekontuari 200 zuzenketa egingo detsez jeltzaliak

Eibarko EAJ-PNVk aste honetan azaldu dabenez, esku artian daken aurrekontuaren zirriborruan “3’4 millioi euroko desfasia” topau dabe. Salatu dabenez, “sozialisten zirriborruan puztutako gastuak osatzen daben 2’4 millioi” dagoz, “aurreikusi bako millioi bateko diru-sarrerekin batera”. Gauzak hola, jeltzaliak zirriborruari 200 zuzenketa inguru egitteko asmua dakela aurreratu dabe, PSOE-k presentau daben hori konpontzeko asmuarekin. Aurrekontuaren zirriborrua egitteko sozialistak “kopixau eta pegau” egin dabela “eta txarto, gaiñera” pentsatzen dabela diñue.

Alkatia, Sahararako elikagai-bilketiarekin bat



Saharako kanpamenduetan bizi diraneri laguntzeko **asmuarekin** urtero egiten dan elikagai-bilketiari bakesa emon detsa Miguel de los Toyos alkatiak. Beste urte batzuetan egindakuaen bidetik, martitzen eguardixan Urkiko Eroskin hainbat elikagai erosi eta hórrek batzeko daguan kutxan laga dittu. Bere berbetan, *“arroz, pasta edo lekale batzuk erostiak guri ahalegin txiki bat baiño ez desku eskatzen, baiña eurendako oso inportantia da, hamen erosittakueri esker han jende morduak jango dau eta”*.

Piztu Itxaropena karabanarako janarixa batzeko kanpaiña hillaren amaiera arte egongo da martxan eta, urteroko moduan, Eibar-Sahara alkaterekuak be horrekin bat egin dabe. Lagundu nahi dabenak martitzenera arte izango dau aukeria, arroza, pasta, azukria, lekaleak eta konserbak (atuna eta sardiñak) erositta. Eibarren, Eroskin (Urki, Ipurua eta Urkizun), El Corte Inglesian, Isasi okindegixan, Villalban eta BM-n dihardue kanpamenduetara bidaltzeko produktuak batzen.

Euskal Herriko Mus Txapelketia Deporren

Euskal Herriko Mus Federaziñuak antolatzan daben txapelketako bederatzigarren ediziñua jokatu da aurten eta, urtero lez, kanporaketa fase horretako bat Eibarko Klub Deportibuak hartuko dau. Domeka arratsaldian jokatu da, 16:00etan hasitta, eta parte hartu nahi daben bikotiak 20 euro ordaindu biharko dabe; trukian, ardo botilla bat jasoko dabe bikote guztiak. Izena tabernan bertan emon leike egunian bertan edo aurretik. Informaziño gehixago jasotzeko, www.ehmus.eus web orrira jo zeinkie, han zihazten dira-eta sari guztiak. Azken urtitan, gaiñera, Eibarko bikotiak beti heldu izan dira finalera.



autuan

KANTABRIAKO ETXIA

Kantabriako Etxekuak otsailaren 12xan egingo dabe urteko batzarra, alkartiaren egoitzan, 12:00xetan. Zuzendaritzak bazkide guztieri dei egin nahi detse ahal daben neurrixan billerara juateko.



TRIKITILARI GAZTIAK

Eibarko Trikitilari Gaztiak aurtengo Aste Santuan Bartzelonara juan nahi dabe eta, bidaiarendako dirua batzeko rifak saltzen hasi dira. Lehelengo zozketia aurreko domekan egin eben eta zerbaki saritua 1.557 izan zan.

PODEMOSEN BATZARRA

Eibarko Podemos taldekuak datorren asterako batzarra antolatu dabe: herritar guztieri zabalik egongo dan billeria Kultu tabernan egingo da, egunian 19:00etan hasitta.



O T S A I L A

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

M A R T X O A

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

A P I R I L A

				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30



2017ko otsaila-apirila kultur eskaintza

Barixakuero ...eta kitto! astekaria
 Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
 Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
 Itzulpenak eta diseinu-lanak



Euskara Elkartea


Urkizu pasealekua 11, solairuartera
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

"Udalarekin euskaraz? Erregular!", oin dendetan eta tabernetan

Herritarrak euskeraz egittera animatzeko asmuarekin udalak udazkenian hasi eban "Eibarko Udalarekin euskaraz?"

Erregular!" kanpainiarekin aurrera eginda, oinguan "Euskaraz Primeran!" egitasmuarekin bat egin daben dendari eta tabernari-

xak izango dira helburu. Aurrekuan lez, Jose Antonio Azpilikuetak egindako biñetarekin azalduko jakue hartzaillieri udala zerbitzua euskeraz emoteko prest daguala eta nahi dabenak gestiñuak euskeraz egitteko aukeria dakala. Horretarako kanpainiaren barri emoten daben esku-orriak eta imanak banatuko dittue. Biñetan, barriz, Supermendikute eta Ebarista personaje ezagunak dendarixak eta tabernarixak euskeria erabiltzera animatzen agertzen dira. Damera 400 txartel eta iman banatuko dittue. Goiburu moduan aukeratu daben "Erregular" berbiaren inguruan, bestalde, zera diñue: "Eibarren 'Bai horixe! Jakiña!' esateko asko erabili izan dan esamoldia da eta geure-geuria dan berbia erabillita bertoko euskeria pixka bat astindu nahi dogu".



Gure Esku Dagoren baillarako galdeketia aurkeztu dabe

Maiatzaren 7xan Debarrenenian egingo dan herri galdeketia aurkeztu eban zapatuan Gure Esku Dago ekimenak Portalean. Ekitaldixan esandakuaren arabera, galdeketiak zilligetasuna izateko, Debarrenenian gitxienez 4.400 siñadura lortu biharko dittue eta horretan dihardue. Eibarren eguen eta barixakuetan juan leike siñatzera, Deporrera, 19:30xetatik 20:30xetara eta, bestela, Arrate Kultur Elkartean astero egitten daben billerara be juan leike (martitzenetan 19:00etan). Galdeketiaren aldeko siñadurak batzeko epia otsaillaren 17xan amaittuko da.



OTSAILA

Otsailak 7, martitzena:

Harixa Emoten literatur tertulia. Bea Salaberriren "Baionak ez daki" liburua. 19:00etan Portalean.

Otsailak 11, zapatua:

Mendaroko Txokolate Fabrikara bisita. Izen-ematea otsaillaren 9ra arte, ...etakitto!-n (943200918).

Otsailak 14, martitzena:

"Umorea" bakarriketa Jose Cruz Gurrutxagaren eskuetik. 19:00etan Portalean.



Otsailak 15/16/17:

Neguko factorig-a. Euskeraz Primeran! kanpainak txokoa izango du.

Otsailak 19, domeka:

Gurasoak Berbetan egitasmoa jolasak eta txokolatada. ...eta kitto!-n.

Otsailak 21, martitzena:

"Gorputz-jarrera egokiak" hitzaldia berbalaguentzat, Eneko Mallagarainen eskuetik. 19:00etan Kenkon



MARTXOA

Emakumearen Eguna:

Martxoak 3, barixakua:

"Hotzikara ipuin erotikoak", 19:00etan Topalekuan.

Martxoak 8, eguaztena:

Flashmoba 19.30ean Untzagan, eta kontzentrazioa 20:00etan.

Martxoak 12, domeka:

"Denok martxan berdintasunaren alde" herri-martxa.

Martxoak 17, barixakua:

"King Kong neska" antzerkia, 19:00etan Portalean.

Martxoak 3-17:

Emakume artisten erakusketa, Topalekuan.

Martxoak 7, martitzena:

Harixa Emoten literatur tertulia. Goizalde Landabasoren "Babeserako kopia" liburua. 19:00etan Portalean.

Martxoak 9 eta 10, eguena eta barixakua:

III. Gilda Lehiaketa. Euskeraz Primeran! kanpainako tabernetzat.



Martxoak 11, zapatua:

Akroyoga saioa Gurasoak Berbetaneko partaideentzat. ...eta kitto!-n.

Martxoak 22, eguaztena:

Korrika Kulturalaren barruan: "Perlak" kontzertua. 19:00etan Beleko tabernan.

Martxoak 31, barixakua:

Barixakua jolasak: Korrikarako materiala prestatzeko tailerra. 17:30ean ...etakitto!-n.

APIRILA

Apirilak 4, martitzena:

"Beldurak" antzezlan Zirrikituen Jostuna bikotearen eskuetik. 19:00etan Portalean.



Apirilak 4, martitzena:

Harixa Emoten. Arrate Egañaren "Paradisua" liburua. 19:00etan Portalean.

Apirilak 7, barixakua:

20. Korrika pasatuko da Eibartik. 23:00k inguruan.



Apirilak 29, zapatua:

Gerra Zibileko Eibarko fronteen aztarnak ezagutzeko irteera.

kale izena pertsonaiaren izana



POLONIA ETXEBERRIAri (1865-1947) eskainitako kalea Urki auzoan dago, kalearen goiko aldean. Polonia Etxeberriak bere urte gehienak irakaskuntzari eskaini zizkion: gutxi izango dira bere eskolan egon ez diren Eibarko adineko emakumeak. Bere familia oso ezaguna zen Eibarren: Aita Jose Cruz Etxeberria zen, "Txantoi", bere anaiak edo nebak

Bonifazio eta Julian -lehenengoak STAR lantegiaren fundatzailea, bigarrena Armeria Eskolan urte askoan zuzendari izandakoa. Oso gaztetik izan zuen Poloniak irakaskuntzarako joera. Logroñora joan zen maistra egitera: XIX. mendearen amaieran emakume batek ikasketak egitea ez zen oso arrunta. Eibarren,


neskentzako lehenengo eskola sortu zenean, han jardun zuen Gumersinda Lopez de Gereñu irakaslearen laguntzaile. Sasoi hartan, Eibarren, bi maistra zeuden: Gumersinda Lopez de Gereñu eta Petra Ziaran. 1889. urtean, Petra Ziaran hil zenean, Poloniak hartu zituen haren irakaskuntza-ardura guztiak.



Arraterako planaren inguruko eztabaida irekixa egingo dabe

Arrate, Kalamua eta Santakurutz Babestu eta Zaintzeko Plan Berezixa gero eta gertuago daguala eta, udalak parte hartzeko jardunaldixak antolatu ditu, "herritarrak plana idazteko ideiak eta proposamenak" egitteko aukeria izateko. Lehen saio irekixa aste honetan, eguaztenian egin zan eta Santakurutz, Ixua eta Kalamuarako asmuen gaiñian jardun eben. Bigarren saia, barriz, datorren astian, eguaztenian egingo dabe, 18:00etatik 20:00etara Portalean eta egun horretako eztabaida-taillarrian parte hartzen dabenak Arrateri buruz berba egitteko aukeria eukiko dabe.

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Gazte bi epaitegira deittu dittue

Eibarko Librek eta LAB sindikatuak aditzera emondakua arabera, iazko Maiatzaren Lehenaren inguruko mobilizaziñuen harira Eibarko gazte bi epaitegira juateko deittu dittue. Diñuenez, "Maiatzaren 1eko manifestaziñua eta gero Ertzaintzak bi gazte identifikatu zittuan eta, frogarik euki ez arren, denda eta bankuen kontrako erasuak egin zittuela leporatu zetsen. Euretako bat, adin txikikua, hillairen 13an juan bihar izan zan Donostiara deklaratzera eta bestia, barriz, otsaillaren 1ian Eibarko epaitegira juan biharko da. Gauzak holan, Eibarko Librek eta LABek dana poliziaren montajia izan dala salatzzen dogu. Identifikaziñuak egitterakuan poliziak izandako jarrera be lotsagarrixa izan zala azpimarratu nahi dogu, Untzagan kamisetak saltzen geldittu ziran bi gazteingana ezkutuan eta mehatxuka gerturatu ziran eta".

Euren kontrako ezer euki barik gaztiak epaille aurrera eruatiak zer ekarri leikian kezkatuta dagoz: "Epailliak erabagitzen dabenaren arabera, kasua bertan behera geratu eta artxibau leike; edo bide administratibotik bideratu eta zigor ekonomikua jaso leikie gaztiak; edo bide penala zabaldu eta epaiketia eukitzia be izan leike". Holakuekin "injustizien kontra borrokatzen dabenak, batez be euskal gaztiak zigortzia" besterik ez dabela billatzen pentsatzen dabe eta etorri leikianaren aurrin mobilizaziñuak deitzeko asmua dakela aurreratu dabe.



Sortzaillien Mugikortasun programiandako eskaeriak

Debegesatik aditzera emon dabenez, Euskadi-Akitania Euroeskualdeko Sortzaillien Mugikortasunerako programaren bigarren deialdixa zabaldu dabe. Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen daben programari esker 24 gazte sortzailliek (12 lagun eskualde bakotzeko) Euroeskualdian mugitzeko eta holan ekosistema sortzaillia indartzeko aukeria eukiko dabe. Eskaeria aurkeztu nahi dabenak enpresa-proiekturen bat edo ekintzailetza egitasmoren bat martxan euki biharko dau eta horretarako epia otsaillaren 17ra arte egongo da zabalik. Informaziño gehixagorako eta izena emoteko www.debegesa.eus webgunian begiratu.





Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Ginekologia

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

Dietetika/Nutrizioa

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa **Arreta arazoak**
Disfonia Berba arazoak
Ikaste-arazoak Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ONA)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikina

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2.º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

 **SEXOLOGIA ZENTROA**

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Ispiluak gure burua irudikatzen ez duenean

Nola sentituko ginatke guk sentitzen duguna jendeak ikusiko ez balu? Errealitate horretan harrapatuta bizi dira transexualak, euren identitate sexuala ez baitator bat kanpo genitalen itxurarekin. Haurrak hiru urteen bueltan duenean agertzen da identitatea eta gehientsuenak orduan ohartzen dira euren egoeraz, euren ingurukoaz baino lehenago. Errealitate hori gizarteratzeko asmoz hasi du kanpaina berria Chrysallis Euskal Herria elkarteak orain dela egun batzuk, Facebook-ek zentsuratutako irudiak izan duen oihartzuna lagun. "Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak, horrelaxe da!" izan da kanpainaren leloa. Azken urteotan, baina, hainbat saiakera egin dira arazo horri aurre egin eta halako egoeran daudenei laguntasuna eskaintzeko.



Emaize sexologia zentroak koordinatutako liburuak arrakasta handia izan du.

Badago liburu bat, orain dela hilabete bat kaleratutakoa, Nahiane Gasteizko neska transexual baten istorioa kontatzen duena, bere amaren begietatik. "Ni Nerea naiz" deitzen da ilustrazio bikainez hornitutako liburu hori eta Emaize sexologia zentroak koordinatu du. Nahianek bera izatean lortzen duen zorientasuna azaltzen du publikazioak, ordura arte izandako oztopoak deskribatzen dituen moduan. Bellaterra editorialak "Yo soy Mía"ren 500 kopia kaleratu ditu, eta beste 250 euskeraz, "Ni Nerea naiz" izenarekin. Ipuin moldean kontatzen du Nerea Garciak, Nahaineren amak, alabaren istorioa: "Txiki-txikitatik argi adierazi zuen neska sentitzen zela, nahiz zakila izan, eta nahiz eta inguruko guztiek mutil gisa tratatu".

Ipuinean ahalegin berezia egiten dute sexu-identitatea eta sexu bakoitzari historikoki esleitu zaizkien rola bereizten: "Erropa edo kolore bat lehenestek ez du inor gizonago

edo emakumeago bihurtzen. Helduok sarritan mutilen gauzen eta nesken gauzen artean bereizketa egin arren, ez da halakorik" diote, ildo horretan egindako aurrerapenekin ere oraindik bide luzea egiteko dugula zehaztearekin batera. Haur-transexualitatearen errealitatea hurbiltzeaz gain, "sexu-aniztasunaren onarpenean lagundu" nahi izan dutela diote Emaizekoek: "Ez dagoelako mutiko edo neskato -edo gizon edo emakume- izateko modu onargarri bat eta bakarra, baizik eta pertsona bezain beste".

Gasteizko neskatoak bederatzi urte ditu orain, baina hiru urterako hasi zen bera benetan zein zen adierazten. Etxean, baina, kostatu zaien gertatzen zena ulertzea: "Ez genekien zeren aurrean geunden, ez ginen errealitate horren jabe. Eta errealitate hori gizarteratzen hasi ginen umeak bost urte zituenean, ikustean umeak bizkar gainean zelako pisu astuna zeraman. Zeuden arazoz

jabetu eta erasora pasatu ginen". Ana Ramirez de Ocariz Emaize gabineteko sexologoak azpimarratzen duenez, "aurrerapenak aurrerapen, orokorrean familiak legeen aurretik doaz beti". Liburu ateratzeko orduan ere erakundeetatik hainbat oztopo izan dute, "Nahianek printzesa soinekoa eskatzen duelako... hori koko-jantzi moduan besterik nahi ez duenean" diote.

Orain dela gutxira arte haur-transexualitatea tabua izan bada -"kasurik onenean, txarrenean gizarteak ezikusiarrena egin izan baitu"-, ikusten dugu profesionali eta, batez ere, errealitate horrekin bizi diren kontzientziarioari esker, azken hamarkadan gizarteak begiak eta gogoaz zabaltzen ari dela haur horiekiko. Gasteizko kasuan ere, bai eskolan eta baita lagunartean ere, Nahiane den bezala onartu dute. "Adin txikikoek arazo gutxiago izaten dute gauzak normaltasunez hartzeko; helduok aurreiritzi gehiago izan di-

Emakume
handia

Josefina Torrontegi

Lagun maitagarria: ohorea izan da guretzat literatur eta bizitzako momentu ezinhobeak, primerakoak, zurekin partekatu ahal izatea liburu interesgarrien inguruan. Zaudeten tokian zaudetela, Alfonso eta Marcianorekin, hiruron artean ziur zabilatzela dagoeneko irakurketa-klub bat antolatzen. Laztanak eta besarkadak.

ZUEN ASTELEHENETAKO IRAKURKETA TALDEKOEK

Irakurle
bikaina


tugu eta izango ditugu beti". Hezkuntzaren alorrean ere, baliabide pedagogiko urriak dituzte oraindik familia eta eskolek gai hau txikienekin lantzeko. Horregatik balio dezake libururik horrek sexu-aniztasuna aberastasun-iturria den kontzientzia zabaltzeko.

Beste esperientzia batzuk

Aurretik ere, iazko martxoko alean, Pirritx eta Porrotxen inguruko pertsonaia protagonistatzen duten "Irrien Lagunak" umeentzako aldizkarian genital maskulinoak dituen neskatoa agertzen den lehen komikia kaleratu zen. Laia da bera eta Ane Pirata komikiaren protagonista ezagutuko du igerilekuan. Komiki horrek transexualitatea lantzeko aukera eskaini zuen moduan, Getxoko San Nikolas ikastola aitzindaria izan da gaia tratatzerakoan. Maiatzaren 17an, esaterako, Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, euren sortutako liburua irakurri zuten eta gero liburuxka hori ikasleek euren etxetara eraman zuten, bertan gehiago lantzeko. Materiala ere sortu dute zentroan eta gida horretako lehen edizioa (euskeraz eta gazteleraz dago) doan jaitxi daiteke internetetik.

Sentsibilizazio kanpainak

Hilabete honetan Chrysallis Euskal Herriak kaleratutako kanpainak, bestalde, indar handia hartu du, oihartzun zabalena -kasu batzuetan, behintzat- zentsuratua izan ondoren izan bada ere. Facebook-ek, gaztelerazko orriko irudiari baietza eman ostean, euskarazkoan kentzeko eskatu zuen eta, ondoren, elkarteak irudiko genitalak estali zituen bi



BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK ETA BULBA DUTEN MUTILAK *Horrelaxe da!*

**HORIETAKO GEHIENEK SUFRITU EGITEN DUTE,
 GIZARTEAK ERREALITATE HONEN BERRI EZ DUELAKO**

Chrysallis elkarteak hilabete honetan kaleratutako kanpainaren irudia.

orrietan. Bea Sever elkarteko kideak "espero genuen oihartzuna aise gainditu" duela esan zuen, Facebook-eko gertakariak horretan lagundu duela onartuta. "Gainera, Twitterren ere asko zabaldu da". Horrez gain, administrazioekin lan egiten jarraitzeko beharra nabarmendu zuen eta, Eusko Jaurlaritzari eskatu badiote ere familientzako arreta zerbitzu bat martxan jartzeko, eta hezkuntza protokoloaren barruan irakasleei prestakuntza emateko, "hori paperean badago ere, ez dira egiten ari".

...eta kitto!-rekin kolaboratzen duen Arantza Alvarez Eibarko sexologoak dioenez, "gure parametroak ez balira hain estuak, horrelako kasuak ez ziren hain dramatikoak izango. Gutako askoren eskemetan gure identitate sexuala genitalek definitzen dute eta hori ez da horrela: identitate sexuala psi-

kologikoa da, ez fisikoa. Berdin dio hankartean duguna". Chrysallisek egindako kanpainaren alde dago, "biluztasuna normalizatzen duelako eta baita gorputzen aniztasuna ere. Guzti hori normaltasunez tratatzeak asko lagunduko liguken denoi, batez ere euren identitate sexualak arazoak sortzen dizkienei. Gure esku dago bitzta erraztea".

Alvarezek uste du gizarteak mesfidati jotzen duela beti "gauza berrien, araroen eta gutxienenen aurrean; arriskua ikusten dio halakoei eta erreprimitu egiten ditu. Gizarteak kontserbadorea/atzerakoia da orokorrean. Aldaketak beti gertatuko dira azkarago maila indibidualen orokorrean baino". Gaia hobeto ulertzeko, "XXY" Argentinako pelikula gomendatzen digu.

Zakila eta bulba esaten ez zen sasotik gatzela ikusita, ez dira gutxi eman diren aurrerapausuak. Katalunian, esaterako, urriaren 24an bertako Osasun Sailak Trans*forma la Salut plataformarekin batera aurkeztu zuen pertsona transexualentzako osasun arreta jarraibide berria. Haur transexualen familien eskaerak ere ildo beretik doaz: dokumentazio ofizialean izen eta sexu aldaketa egiteko tramiteak malgutzea; osasun arloan, nerabezaroan blokeadore hormonalak sartzea erraztea; eta hezkuntzan, diskriminazioari aurre egiteko protokoloak indarrean egotea.



"Irrien Lagunak" aldizkariako komikian Laia transexualak Ane Piratarekin egingo du topo igerilekuan.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
 ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

*Kafea, opilak, ogia,
 pintxoak, ardoak...*

**Gozatu EIBARKO
 PREZIORIK ONENEKIN!**

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO
 LABADEROKUA Eguneroko 06.00etik aurrera

Markel Perez (boluntarioa)

«Ziur nago nik eman nuena baino gehiago jaso dudala»

Markel Perez 23 urteko Eibartarra medikuntzako seigarren mailako ikaslea da. 2015eko udan Perura abiatu zen Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundeak emandako proiektu batekin, baina bertan zela bigarren proiektu batean ere sartu zen bete-betean, bere zaletasun nagusia eta kooperazioa uztartuz. Betidanik ibili da Markel futbolaren inguruan eta orain Eibarko B mailako kategorietan jokatzen du. Bidaiatzea ere bere zaletasunen artean dago eta, behin probatuta, betirako "harrapatzen" zaituela dio.



– Zein proiektuekin abiatu zinen Perura?

Eibarko Udaletxeak aurkezten dituen elkartasun beka batera aurkeztu nintzen Egoaiziak emandako proiektu batekin. Peruko Buenos Aires eskualdean 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzako arreta politika publikoak burutzeko proiektua zen, umeen osasuna sustatzeko. Hitzaldiak ematen nituen, zailtasunak zituzten herri txikietan osasun azterketak egin eta batez ere nire babesa eskaintzen nien. Hala ere, arratsaldeak futbol eskola batean ematen nituen Piuran, neska-mutilak entrenatzen. Arreta eman zidan bere izenak: Escuela Deportiva Eibar. Eibartik boluntario talde batek bidalitako kamisetengatik hartu zuten izena. Gune marjinalen kokatutako eskola zen baina berdintasunean oinarritutako baloreak irakasten zituzten futbolaren gaineratik.

– Honen inguruan S.D. Eibar Fundazioak eta Egoaiziak hitzarmen bat sinatuko dute...

Izenaren berezitasuna ezin zitekeen hor geratu. Lotura handiago bat egon behar zela pentsatu nuen eta handik bueltatzean Kirol Elkartearekin harremanetan hasi ginen konexio hori ofi-

zial egiteko. Ez da lehenengo saiakera izan baina oraingoan, Piurako eskola aurrera eramaten duten bi pertsonak hona etorri dira, 10 egunez, klubaren funtzionatzeko moduak, metodoak eta bestelakoak ikustera. Niri bereziki ilusio handia egiten dit proiektu honek.

– Zer eragin izango du honek Piurako haurrengan?

Hemendik materiala bidatzeak badu garrantzia, baina uste dugu haratago ere joan gaitzkeela eta lehenengo mailara iristea lortu duen talde batek bere balioak eta lan egiteko moduak azaltzeak ere laguntzen duela. Gainera influentzia handia izango da Piurako eskolarentzako, izan ere, inguruan badaude diru gehiago duten eskolak eta beraz, prestigio handiagoa dutenak. Baina lehenengo mailan jokatzen duen talde batekin harremana izateak eskola hau asko babesten du.

– Zuretzat nolako esperientzia izan zen bizitakoa?

Oso aberasgarria. Batzuk uste dute gu irakastera edo laguntzera soilik goazela eta ni pentsamendu horrekin ez nator bat. Ziur nago nik eman nuena baino gehiago jaso dudala. Boluntarioak gauzak partekatzea doaz, beste ikuspuntu batzuk ezagutzera.

www.aldatze.org

aldatze

**VI. ALDATZE
DENOK GARA
otsailaren 4an
11.00etan**



Hitzaldia eta garagardo tailerra gaztetxean

Gaurko hitzaldia antolatu dute Eibarko gaztetxean: "Gazteak Kalean" izenburuari jarraituta, 19:00etatik aurrera auziperatutako hainbat lagunek errepresioaren eta plataformaren sorreraren eta garapenaren inguruan egingo dute berba. Ondoren, zerbait jateko aukera izango da eta musikarekin amaituko da

saioa. Gazteak Kalean plataforma 2016ko irailean sortu zuten, "jazarpen polizialari" erantzuteko. 2015eko Tolosako inauterietan Ertzaintzarekin izandako liskarren ondorioz kartzela zigorrak eta isunak, eta bestetik, Ezpala gaztetxearen bigarren okupazioaren ondorioz, zigor ekonomikoa ezarri dieten gazteek osatzen dute.

Bestalde, bihar eguerdian Garagardo Tailerra egingo dute gaztetxean bertan: "12:00etatik aurrera bildutakoak garagardoa egiteko aukera izango dute. Errezeta ezberdinak erabiliko ditugu eta garagardoa elkarlanean egingo dugu, etxeko garagardoa ekoizteko bereziki prestatu dugun gelan. Biharkoa lehen tailerra izango da, baina aurrera begira gaztetxeak bere garagardoa ekoiztea da asmoa. Jendea jateko zerbait eramatera animatu nahi dugu, gero elkarrekin bazkalduko dugu eta. Animatu eta parte hartu!".



Batxilergo Artistiko Musikala Elgoibarren

Deba bailaran Musika Eskolek daukaten indarra eta, orohar, herritarren artean musikarekiko dagoen zaletasun handia ikusita, badira urte bi Elgoibarko Arreiturre Institutuan Batxilergo Artistiko Musikala ematen hasi zirela.

Ikastetxeko arduradunek adierazitaokoaren arabera, "lehen bi urte hauetan batxilergo artistiko musikala ikastera animatu diren Oñati, Bergara eta Elgoibarko 4 eta 5 ikasleekin esperientzia aberasgarria izan dugu. Hala ere, eskaintza indartze aldera, Eibar, Arrasate eta inguruko beste herrietan ere aukera honen berri izatea nahiko genuke". Izan ere, eskaintza nahiko berria denez, askok ez dute jakingo batxilergo mota hori etxetik gertu ikasteko aukera badagoela. Arduradunek azaldu dutenez, "Batxiler Artistiko Musikalak giza zientzietako ohiko ateak ez ditu ixten eta, aldiz, beste eremu batzuk zabaltzen ditu, musika, dantza eta antzerkiaren inguruan".



Ikasketak musikari lotuta egin nahi dituzten gazteentzat aukera bikaina eskaintzen du.

Batxilergo honetako ikasgaiek bidea ematen dute etorkizunean Irakaskuntza Artistikoak eta zenbait Unibertsitate Gradu ikasteko, baita Humanitateak eta Giza Zientzien Batxilergoa eginez gero aukeratu daitezkeen Unibertsitate Gradu gehienak ere: Goi mailako Heziketa Zikloak (arte dramatikoa, animazioa, soziokulturala...), Musika,

Dantza eta Interpretazioaren Goi Mailako ikasketak eta Arte eta Humanistiko alorreko Unibertsitate Gradu asko eta asko. Informazio gehiago nahi duenak www.elgoibarbhi.eus helbidean begiratu dezake edo, bestela, ikastetxera deitu (943748397 luzapen zenbakia 353) edo idatzi (013431aa@hez-kuntza.net).

<p>A1-A2</p>  <p>499 € Guztia barne</p>	<p>B</p>  <p>252,89€ Teoriko+5praktika</p>	<p>autoescuela elVelocimetro</p>  <p>Eibar: Otaola,7 (CFP) 943 820 601 www.elvelocimetro.es</p>	<p>C+E</p>  <p>789€ Guztia barne</p>	<p>CAP+C</p>  <p>CAP 900€ C 720 €</p>
---	--	---	---	---

* C, C+E,CAP 90,30€ Trafiko tasa eta 10 € transakzioa.CAP 30 € Garraio-tasa



Nabari zaio Korori pianoa jotzea maite duela. Abesti batetik bestera pasatzen da, arintasunez, solturaz. Buruz jotzen du, ez ditu partiturak irakurtzen, baina urrezko memoria dauka. *"Sutan grabatuta ditu buruan pieza guztiak!"*, dio Isabel Laspiur bere piano irakasleak.

Pianoan loratu, musikaz gozatuz

6 urte zituenean hasi zen Koro pianoa jotzen. *"Kasualitatez"*, bere ama Eurne Santamariaren esanetan. *"Ikusmenean arazoak zituenez pentsatu genuen berarentzat musika tresna errazagoa izan zitekeela, baina beste edozeinekin hasi zitekeen"*. Lehen begiratuan maitemindu zen pianoaz eta 22 urterekin amodio erlazio berean jarraitzen du.

Laspiur irakasleak azaltzen duenez, *"oso belarri eta memoria ona dauka"*. Suzuki metodoaren bitartez ikasi zuen, hau da, belarriz. *"Txikiak direnean ez dituzte pentagramak irakurtzen eta Kororekin horrela jarraitu dugu gaur egunera arte"*, azaltzen du irakasleak. Astean behin joaten da Koro piano klaseetara, baina azkenaldian helburu handia dute aurrean.

Soinu Mosaikoa proiektua

Urtebete darama Korok gaur Kursaalaren eskainiko duen kontzertua prestatzen. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS) eta FEVAS Adimen edo Garapen Urrita-



Koro Alonso

PIANOJOLEA

suna duten Pertsonen Elkartearen Euskal Federazioak Soinu Mosaikoa izeneko proiektua jarri dute martxan eta, honen barruan, araz kanpoko funtzionaltasuna duten hemeretzi lagunek lau kontzertu eskainiko dituzte EOSekin batera. Lehen hiruak abonamendu denboraldiaren barruan egingo dira (gaur eta 30ean Kursaal, eta otsailaren 2an Gasteizko Printzipal antzokian) eta, laugarrena, otsailaren 4an egingo da, Kursaal baina ere, baina Musika Familian zikloaren barruan. *"Azken hau beste formatu batean egingo da, didaktikoagoa, EOS gabe"*, Laspiurren berbetan.

Munduko lorerik handiena

Emilio Aragonek proiektu honetarako espresuki konposatutako abesti bat joko dute Koro eta bere kideek, *"Munduko lorerik handiena"*, izen bera duen Jose Saragorenen liburua oinarritzen dena. *"Musika zoragarria da"*, dio ilusioz Laspiurrek, *"eta narratzailea ipuina kontatuz*

doa". Elkarrizketa egunean entsegua izan zuen Korok eta bere irakaslea emozionatuta zegoen bertan ikusitakoarekin.

Eurne Santamaria Kororen amak dio bere alaba ez dagoela urduriegi zitaren aurrean. *"Eskarmentua dauka, urtero Colisoean bera bakarrik aritzen da eszenatoki gainean eta, gainera, horren zain egoten da"*. Korok abestiaren melodia joko du bi-bolinekin batera eta prest da erronkari aurre egiteko.

Urtebetez hilabete behin elkartu dira EOSeko musikariekin eta, entseatzeaz gain, tailerrak egin izan dituzte eurekin. Kororen kide batzuk ez zeukaten musika noziorik, baina guztiek hartu dute parte proiektuan. Laspiurren esanetan, *"Korori erraza egin zaio abestia ikastea, geratzen dena da EOSekoekin ondo koordinatzea"*.


Entzun dutenek hitz politikak besterik ez dituzte ekimen honen gainean, beraz, kontzertu hauek galdu nahi ez dituen sasoiz da oraindik, sarrerak salgai daudelako www.euskadikoorkestra.es webgunean.

MARIA MANTEROLA EIZMENDI

(1. URTEURRENA: 2016-I-23)

"Gure Bihotzeko Ama maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara"

ZURE SENIDEAK



Kanpoko
hotzaren
aurrean...

...ETXEAN
BERO-BERO

2017ko
urtarrila

 **AMAÑA**
FONTANERIA

fonta.amana@gmail.com

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Jardines Iturgintza

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net

 **ELEKTIBAR, S.L.U.**
ELEKTRIZITATEA

**PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK**

- * Denetarikoa **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31 electibar@gmail.com
Aurrekontuak konpromezurik gabe



Nola kudeatu behar dut nire berotze sistema erosotasuna gutxitu gabe eraginkorra izan dadin?

Berotze sistemak etxebizitzak benetan erabiltzen diren orduetan piztea eta gauetan itzaltzea komeni da; ohean eta tapatuta egotean berogailua ez da beharrezkoa, eroso lo egiteko nahikoak baitira 15-17 °C. Zure etxea oso txarto isolatua badago eta gauean beroa galtzen badu, termostatoa 15-17 °C bitartean ezarrita berogailua piztuta utzi dezakezu. Orokorrean, gauean itzaltzea eta jaikitzean minutu batzuetan piztea gau osoan piztua uztea baino askoz eraginkorragoa da. Ahal denean, termostatoa 20-21 °C bitartean ezartzea eta etxean egoteko soingaineko erropa erabiltzea gomendatzen da, baita beroa ez galtzeko gauetan pertsianak jaistea eta kristalen hotza ekiditeko gortinak ixtea ere, hau da, teknikoki horma hotza deritzona. Eraikineko edo etxebizitzako tenperatura gradu bat gehitzeak energia kontsumoa %7 igotzea dakar.

Nola murriztu energia faktura

Etzetresna askok, telebistak, hozkailuak edo ordenagailuak, kasu, energia kontsumitzen jarraitzen dute itzalita egon arren, konektatuta jarraitzen badute. Kontsumo fantasma deritza horri. Telebista urrutiko kontrolarekin itzaltzen dugunean ere kontsumitzen jarraitzen du. Gure esku dago hori saihestea, eta noski, etxetik kanpo denboraldi luze bat egin behar dugunean tresnak deskonektatzea.

Zure etxebizitzaren diseinuak ere energia dezente aurrezten lagun dezake. Leihogehienak hegoalderantz dagoen horman edukitzea komeni da, neguan eguzkiaren erradiazioa hobeto baliatzeko. Era berean, iparraldera begira dauden beirate eta leihoak saihestea komeni da, eta baita sabai eta ganbaretako leihoak ere, bero metaketak murrizteko. Isolamenduak ere laguntzen du. Eta ekialdera, mendebaldera eta batez ere hegoaldera ematen duten leihoei estalkiak jartzea komeni da. Horrelako aholku txikiak jarraituz, konturatu ere egin gabe energia aurrezten ari gara.

Etxeke argiztapena ere zaindu beharrezkoa da energia aurrezteko, argindar kontsumoaren %15 argiztapenean baitoa. Argi naturala ahalik eta gehien baliatu behar da, doan izateaz gain ez baitu kutsatzen. Errezel zuriak erabiltzea komeni da, argi naturalari sartzen uzteko. Bonbilla egokiak aukeratzea ere garrantzitsua da. Kontsumo gutxiko bonbillak, goritasunezkoak edo fluoreszenteak. Kasu bakoitza aztertu ondoren, egoki aukeratuz gero energia asko aurrez daiteke, eta kalitatezko argiztapen bat eduki. Bestalde, ez da komeni gela bakoitzean lanpara bakarra jartzea, eta gune bakoitzak bere bonbilla txikia edukitzeak kontsumoa murrizten du.

SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustin, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxa. 943 53 15 03**



Lagunak

erreformak

**Zure erosotasuna eta lanen
kalitatea, gure izatea**

lerreformak@gmail.com
943 70 26 12 - 625 185 122 Txaltxa Zelai, 1-2 behe

- ▼ Erreformak
- ▼ Errehabilitazioa
- ▼ Iturgintza
- ▼ Gasa eta kalefakzioa
- ▼ Gremioen koordinazioa
- ▼ EIT (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa)
- ▼ Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria
- ▼ Arkitekto Tekniko Lan/Zerbitzuak



Azpiri

EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Calbeton, 23
943 12 07 91

Matxaria, 2
943 20 35 12



IZARRAITZ LEIHOAK-ERREFORMAK

**Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Peoren konponketa...**

**Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26**

**EIBAR (SONIA)
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com**

Etxebizitza isolatu

Energia aurreztea eta aire korronteei, hormetako hezetasunari edo metaletako lizunari aurre hartzea etxearen isolamendu egoki batez lortzen da neurri handi batean. Hormetan, sabaian eta zoruan zehar airea eta beroa sakabatzatzen dira; beraz, adituen arabera, aipatutako puntu estrategiko horiek sendotzea da neguan beroa etxe barruan atxikitzeko modurik onena. Hartarako, merkatuan badira material isolatzaile ugari, eta eskaintza asko eboluzionatu da azken hogeitaz urte honetan, amiantotik beste batzuetara igarota; beste horiek askoz ekologikoagoak dira, propietate hobekak dituzte eta etxebizitza suteetatik babestu eta poluzio akustikotik isolatzen dute.

Gure esku dauden neurriak

Inongo teknikoren laguntzarik gabe eta erabili beharreko materialari eta honen erabilerarik egokienari buruzko zerbait aholkurekin, aire- eta bero-ihes aukera gehien dituzten etxe atalak isola ditzakezu:

- Begira itzazu leihoetako zerrenda itsasgarriak, iraungitze-data dute eta. Aldatzeko nahikoa da zaharrak ur beroarekin altxatu eta ingurua garbitzea berriak jarri baino lehen.
- Beira bikoitzak jartzea hotzaren kontrako isolatzaile onena eta kanpoko beroaren kontra ere babesten gaitu.



- Material isolatzailezko zintak, oso ekonomikoak ez ezik gomendagarriak ere badira ateak eta leihoak doitzeko. Iraunkorrenak binilozkoak eta silikonazkoak dira.
- Ateak errazagao ixteko, junturak erabiltzea komeni da.
- Alfobrek zorutiko beroa galtzea gutxitzen dute, bero-kuntzaren instalazioa bertatik badoa ere.
- Erabil itzazu isolatzaileak zokaloen atzean, horma eta zorua elkartzen diren tokian, hala nola ateetako markeen eta hormen junturretan.



IGA

KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-
Tfnoak. 943 70 25 41 / 670 21 46 25 Faxa. 943 70 24 95

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Birjiñape, 1 behea Tfnoa. 943 20 20 40
cristaleriaiga@gmail.com

TAILERRA:
Errekatxu, 3


CLIMALITekin **isolatzaile onena lortuko duzu**
akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: **eta faxa: 943 20 39 03**
Arikixaneko Zubian **info@cristaleriaacha.com**

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.



Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, ateak, barandak, makinendako babesak, tximiniak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67
Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net



Diabetesari aurrea hartzeko kanpaina botiketean

Herritarrengan 2 motako diabetesa izateko arriskua antzemateko asmoz, programa berritzaile bat ipini dute martxan Gipuzkoako 119 farmaziatan. Izan ere, herritar askok ez daki diabetes mota hori duenik eta, gaixotasunaren harira konplikazioak ager daitezkeenez, horrelakoak saihesteko asmoz abiatu dute ekainera bitartean martxan egongo den prebentzio eta diagnostikorako kanpaina. Eibarren Azkue, Goikoetxea, Mandiola, Mendiñeta, Castaño eta Zulueta botikek egin dute bat kanpainarekin.

Gipuzkoako Farmazeutikoen Elkartearen ekimenez, aurreko asteaz geroztik herritarren artean 2. motako diabetesa (mellitus) izateko arriskua dagoen ala ez modu erraz eta erosoan detektatzeko programa dago martxan. Laborategira joateko premia izan barik, botikan bertan egin daitekeen Findrisk-en testarekin gaixotasuna izateko arriskua dagoen ala ez berehala antzeman daiteke eta, emaitzaren arabera, proba egin duenari nola jokatu behar duen azaldu. Eta hori guztia ezer ordaindu barik.

Angel Garay Gipuzkoako Farmazeutikoen Elkarteko presidentek kanpainaren aurkezpenean esandakoaren arabera, "programa honekin XXI. mendeko pandemia den DM2 gaitzari aurre egiten lagundu nahi dugu, botikarien bitartez gaixotasunaren prebentzioa ahalbidetu-



Aurreko asteko martitzenean aurkeztu zuten Gipuzkoako farmazietan ekainera arte martxan egongo den kanpaina berezia.

ta". Diabetes mota hori gaitz kronikoen artean zabalduen dagoen hirugarrena da eta populazioaren %7'8ri eragiten dio. Gainera, herritarren %6k ez daki gaixorik dagoenik eta %14'8k gaitza garatzeko arriskua dauka. Gaixotasunaren ondorioz sor daitezkeen arazoak, baina, larriak dira. Besteak beste, miokardio infartua, garuneko tronbosia, anputazioak, gultzurrun arazoak eta erektzioaren disfuntzioa eragin ditzazke. Hortik gaixotasuna antzemateak duen garrantzia.

- Nork egin beharko luke testa?

Gaixotasunaren inguruko diagnostikorik ez duten 40 urtetik gorakoek.

25-39 urte bitartekoek, arrisku faktoreen bat izanez gero (familian DM2 kasuak dauzkatenek, larregizko pisua dutenek, jatekoa zaintzen ez dutenek, ariketa fisikorik egiten ez dutenek, tentsio altua dutenek...).

Gaixotasun kroniko larria

Diabetes mellitusa odolean glukosa (azukre) maila handitzen denean sortzen den gaixotasun kronikoa da eta pankreak intsulinarik sortzen ez duenean edo, sortu arren gorputzak ondo erabiltzen ez duenean gertatzen da. Hasierako sintomak hauek dira: egarria, pixa egiteko eta jateko normalean baino gogo handiagoa, nekea, pisua galtzea, ikusmen arazoak eta oin eta eskuetan inurridura izatea.

Gaixotasuna saihesteko aholkuak

- Ariketa fisiko aerobikoa egin (egunero 30 minutuz ibili, igerian egin...).
- Egutegia 5 otordu egin.
- Era osasungarrian sukaldatu (plantxan, lurrinetan edo laban).
- Esnekiak neurrian hartu.
- Egutegia fruta eta barazkiak jan (5 pieza), gordinik zein egosita.
- Zerealak egunero jan (ogia, pasta...).
- Asteaz 2-4 arrautza jan.
- Arrainak asteaz hiru edo lau aldiz jan (aukeran, urdina).
- Haragi gorria asteaz behin baino ez jan, horren ordez oilaskoa, untzia, indioilarra... hartu.
- Oliba olio erabili eta asteaz hirutan fruitu lehorren bat jaten ahalbidetu.

FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna-

5. urteurrena (2012-I-29)

"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

ETXEKOAK



Elgetan, Kafe Antzokia, 13Spaloia esaten da. Eta zapore eibartarra dauka. Saturraraneke txiringitoan eta Lekeitioko K13 kioskoan esperientzia izan ostean, erronka berria dute Xabi Ulazia eta lan-talde eibartarrak (eta ondarrutar bat) Elgetan. Zuzeneko musikaren aldeko apustuarekin, hilean behin musika-talde handiak ekartzea da bere erronka. Laster itxiko dituzte kontzertu horiek, eta bitartean elgetarrak liluratzten jarraituko dute. Eurentzat "berba politak besterik ez ditugu", aitortzen du zintzo Ulaziak.

xabi ulazia

13SPALOA ELGETAKO KAFE
ANTZOKIKO ARDURADUNA

"Kafe Antzoki hau Eibarren egon beharko litzateke"

- Hilabete eskas pasa da 13Spaloia inauguratu zenutenetik. Nolako harrera izan du?

Oso harrera polita! Inauguraziora jende asko etorri zen, Elgetakoak zein beste herrietakoak, batez ere Eibartik. Pentsatzen genuen The Vartoolsen kontzertuaren ostean jendea poliki-poliki joango zela, baina ezta gutxiago ere. Juergarako gogoia zegoen Elgetan. Bestetik, formatu txikiko kontzertuek erantzun ona izan dute eta oso pozik utzi gaitu horrek; ez guregatik bakarrik, baizik eta musika munduan gogoz ari diren talde txikiengatik. Kultura musikala hilda dago eta kontzertuen formatua berreskuratu nahi dugu.

- Urte bitan itxita egon ostean, Kafe Antzokia hartu duzue. Zein da zuen asmoa?

Hainbat aldaketa egin ditugu. Batetik, izena, orain 13Spaloia delako; eta bestetik, logoa ere berritu dugu. Honekin beste kudeaketa mota bat erreibindikatu nahi dugu; nahiz eta toki bera izan, beste proiektu bat delako.

- Zeintzuk dira zuen kudeaketa motaren ardatzak?

Batetik, bezeroekiko tratua ahalik eta onena izaten saiatuko gara. Bestetik, kultura da gure ardatz nagusia. Antzerki, monologo eta antzekoak egingo dira, baina zuzeneko mu-

sikaren aldeko apustua egingo dugu. Ostalaritzarekin uztartuko dugu hori (otsailean hasiko gara eskaintza gastronomikoarekin), baina gu eszenatokiak erakarrita etorri gara.

- Irekierako kartela, beraz, asmo-deklarazioa zen.

Zerbait handia egitea nahi genuen, jendeak ikusi zezan hona serio gatzozela. Amets Arzallus eta Sustrai Kolina bertsolariak, Euskal Herriko eta Iparraldeko bertsolaritza txapeldunak hurrenez hurren, Jon Gurrutxaga musikaria eta The Vartools talde eibartarra ekarri genituen. Azken hauek itzel aritu ziren eta egun borobila izan zen.

- 13Spaloia hartu aurretik, hala ere, izan duzu esperientzia antzeko ekimenetan.

Saturrarango txiringitoaz eta Lekeitioko plazan dagoen K13 kiosko arduratu naiz. Han zuzenekoak eskaintzen genituen, baina formatua ezberdina zen: musika-ekipoa txikiagoa, aire librean... Polita baita ere, baina zerbait ezberdina hemen eskainiko dugunarekin alderatuz.

- Aldaketa handia dago?

Hau itsasontzi handia da. Han akats txikiak barkatzen ziren, baina hemen soinu edo argiztapen arazoak larriak izan daitezke. Perfekzio puntua lortu nahi dugu.

- Kafe Antzokiak musika taldeen eskaintzaren abanikoa zabaltzen du?

Duda barik. Elgetako Udalari proposatu

genion hilean behin talde potolo bat ekartzea. Horretan lanean gabiltza, tramiteak egiten, ekoizpen-etxe handiekin berbetan, sarrerak internet bitartez erosteko sistema martxan jartzen... lehen kontzertu handia iragartzeko irrikaz!

- Eibartar mordoia Elgetara ekartzea daukazue helburu, beraz...

Neguan zailagoa da eguraldiagatik, baina esan digute fluxu hori antzemango dugula giroa hobera doanean. Gero, asteburu gauean autobusak egotea egokia litzateke eta horretan pentsatzen dihardugu. Hala ere, badago taxibusa egunero. Kontua da Eibarren ez dagoela Kafe Antzokiaren antzekorik. Gazteek kudeatu eta gazteak erakarriko dituen toki bat behar da Eibarren, zuzeneko musikarekin, eta ez reggaetoiaren kultura hori. Gu hona etorri gara hau Eibarren ez dagoelako. Seguru nago denok pentsatu dugula Untzagako zinea Kafe Antzokia bihurtzea. Horren ezean, positiboa izango litzateke Eibar eta Elgetako Udalek akordioa lortzea autobus zerbitzua eskaintzeko, horrela herri bietako jendeak talde itzelez goza dezaten hemen. Legarreko musika estudioak eskaintzen zaizkie taldeei, baina antzokirik ez badute, ezin dute herrian zuzenean jo. Eibarren potentzial musikal handia dago. Kafe Antzoki hau Eibarren egon beharko litzateke, baina Elgetan dago eta gu oso pozik!



Liburuak



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—

Booktuberrak: irakurri den liburuia partekatzeko mugimendua

Booktuberrak gazteak izaten dira gehienetan, 25 urtetik ez dira pasatzen normalean, eta sare sozialak erabiltzen dituzte liburuak komentatzeko. Irakurle belaunaldi berri bat da, "irakurri-grabatu-partekatu" prozesua erabiliz esperientzia literarioari balio erantsia ematen diona.

Gazte hauek irakurtzeko grina eta liburuekiko pasioa partekatzen dute beste irakurle batzuekin. Liburuia amaitu eta gero ez dute beraiantzako bakarrik gordetzen irakurtzean lortu duten plazerra eta poztasuna, ez horixe. Kamera bat hartuta, "rec" sakatzen dute eta etxeko edizio bat egin ondoren, Internetera igotzen dituzte beraien kritikak eta aipamenak; handik gutxira, beste batzuek iruzkinak gehitzen dituzte. Era horretako bideoek eragin duten jarioa ikusita, gazteek irakurtzen ez duten mitoa apurto egiten da, zorionez.

Booktuberrak asko egiten ari dira gazteen artean irakurketa sustatzeko, haien helburua hori ez bada ere. Liburuak, irakurketa... sustatzen dituzte, bai, baina gehien maite dutena zera da: liburuek sorrarazten dizkieten bizipenak partekatzea eta guztien begi-bistan jartzea beraien irakurle-espazioa.



Booktuber fenomenoak mundu anglosaxoian hasi zen, baina gaur egun oso hedatua dago. Espainia mailan ezagunenak "El coleccionista de mundos", "Javier Ruescas", "Fly like a butterfly" eta "Andreo Rowling" dira, besteak beste.

Euskadin, **Galtzagorri Haur eta Gazte literatura elkarteak** orain dela pare bat urte martxan jarritako proiektua da, nik dakidanez, booktuberren inguruan dagoen mugimendu bakarra. Lehiaketa bat antolatu zuten Galdakaoko ikastetxeetako ikasle-artearen eta emaitzak ikusi nahi badituzte, kanal honetan sar zaitzekete: <https://booktubehiaketa.wordpress.com/booktubekanal/>

Gazteek halako sustapen-enerriak behar badituzte irakurtzeko gogoia pizteko, ongietorriak izan daitezela booktuberrak.



Musika

iñaki
zubillaga

Oskorri: musika baino gehiago



Orain ez dira egiten holako portadak. Gaur egun musika alegiazko erara kontsumitzen da. Lehen diskoak, kantak, abeslariak ikutu egiten ziren... Musika eta entzuleak aldatu dira, bata eta bestea lotuta doaz: prozedurak, teknologia... Errazago oraindik: etxean bertan grabatu daike... Orduan eskaintza gehiago, filtro gutxiago, globalizazioa, eredu berdinak, errepikapenak, arrisku gutxiago... Askok aldatu dira tendentziak, bai... Eta, denbora mordo pasatu ondoren, gure protagonistek erabaki zuzena hartu dute: jubilatzea.

Oskorri taldeak 1971n eman zuen lehen kontzertua; handik bost urtera, 1976an, atera zuen bere lehen diskoa. Garai horretan folk mugimenduak jasotzen zuen arrakasta gehien: Erresuma Batuan, Pentangle, Fairport Convention, Steeleye

Span; The Chieftains eta Clannad Irlandan; Alan Stivell eta Gwendal taldea Breitanian.

2015ko azaroaren 22an Oskorri taldeak bere azken kontzertua eman zuen Arriaga antzokian; eta hortik ateratako grabazioa bihurtu dute euren azken diskoa eta pelikula: "Hau da despedial!". Disko horretan azaltzen dira abesti batzuk (hogei bakarrik), alaienak, ezagunenak... eta bizibizian egindako bertsoiak. Baina, euren lagatako ondareari errepaso egokia egiteko, derrigorrez entzun behar dira "Mosen Bernat Etxepare", "Plazarik plaza", "Adio Kattalina", "Katuen testamuentue"...

Aparte, 1997an "The Pub Ibiltaria" proiektuarekin hasi ziren, dibertsio moduan. Hamabi urtetan 13 disko atera eta 226 abesti zahar errepasatu zituzten, gure herentzia musikala berpizteko.



Folk etiketa alde batera, Oskorri taldeak nortasunari eutsi dio beti eta koherentziarekin jokatu du. Irratietan, tabernetan, plazetan, aspaldi ez dira entzuten euren abestiak. Hala ere, nire bizitzako banda sonoroan egongo dira beti.

Eibartarrak taldeak bihar ospatuko du 25 urte sortu zela

Berez kluba 1981ean sortu zen eta, orain dela aste gutxi batzuk amaitu den urtean bete bazuen ere mende laurdena, asteburu honetan ospatuko dute behar den moduan, jardunaldi osoko egitarauarekin. Horrela, bihar goizeko 11:15ean Soraluzeko Ezozian jokatu den beteranoen arteko partiduekin hasiko dira ospakizunak. Hor Eibartarrak-eko eta Eibar FTko beteranoek neurtuko dituzte indarrak, "gure taldeko 40 bat jokalariorhien parte-hartzearekin" Eibartarrak-eko zuzendaritzako en esanetan. Behin partidua amaituta, Ongi-Etorri tabernan izango dute hitzordua, oroiteguneke kamisetak banatu eta kalejiran irteteko, Ustekabe txarangak girotuta. Eibar erdialdetik ibili ondoren, Ipur Sagar dotegian bazkalduko dute: "Ehun lagunetik gora izango gara bertan".

Gaur egun bost lagunek osatzen dute zuzendaritza taldea, beste karguetako 16 ko-

laboratzaileekin batera. Eibartarrak-en egoitza J. Etxeberria 17an dago, sasoi batean J.D. Arrateren egoitza izan zen tokian. Klubak sei talde ditu aurtentzen, guztiak ere mutilenak: nagusiak 1. Erregionalean jokatzen du, kadeteenak 1. Mailan, infantil mailako biak 1. Mailan ere eta gazteenak alebin mailakoak dira (hor ere bi talde daude). Klubeko arduradunen asmoetan dago hurrengo denboraldirako jubencil mailako taldea osatzea eta kadeteetan beste bat ateratzea.

Emakumezko foballean aitzindari

Kluba sortu eta berehala hasi zen emakumezkoen taldearekin jokatzen, ordura arte partidua ofizialak Urkin jokatzen zutenak hartuta. Talde horrek eman dizkio Eibartarrak klubari bere historiako garaipen garrantzitsuenak. 2003-04 denboraldian Eibar FTk hartu zuen talde hori bere organigraman, Eibar-Eibartarrak izenarekin jo-



Mende honen hasierako taldea oso indartsua izan zen.

katzeko. Sei urte geroago, 2009-10ean Eibar FTk hartu zuen guztiz haren ardura eta Eibartarrak izena galdu zuen.

Eibartarrak emakumezkoen taldea 1992an hasi zen 1. Maila Nazionalean jokatzen, ondorengo urteetan ibilbide ezin hobea egiteko: 1991-92an Erregional Mailako liga irabazi zuten eta Nazional Mailara igo; 1995-96an Euskadiko Kopa irabazi zuten; 97-98 denboraldian Liga Nazionaleko azpitxapeldun izan zen lehen multzoan; 98-99an multzo bereko txapela jantzi zuten eta hirugarren izan zen Txapeldunen Ligan, Erregina-

ren Kopako azpitxapeldun gertzeaz aparte; 1999-2000 denboraldian azpitxapeldun izan zen, Superkopa irabazteaz gain; 00-01ean multzoko txapeldun izan zen eta bigarren Txapeldunen Ligan; 01-02an txapeldun berriro eta hirugarren Txapeldunen Ligan, Euskadiko Ligako txapela jaztearekin batera; eta 02-03an multzoko txapeldun izan zen berriro, laugarren Txapeldunen Ligan eta Gasteiz Cup-a bereganatu zuen. Eibar FT-rekin bat eginda ere hainbat lorpen izango ditu aurrerantzean, tartean 2005-06an eskuratutako Kopako txapela.

Jarraian hirugarren garaipenaren bila irtengo dute bihar Unben

Avia Eibar Rugbyko senior taldeak bere ibilbidea zuzendu du zertxobait azken jardunaldietan eta, Unben Oviedori irabazi eta gero, aurreko asteburuan Universidad de Vigori irabazi zion Galizia aldean (28-31). Garaipen bi horiek azkenaurreko postua laga du eta bihar aurkari izango duen El Salvador B taldeari aurrea hartu dio, Oviedotik bakarrik hiru puntura kokatzeko azken postuetatik ihesi egiteko borroka horretan. Biharko partidua arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Bestalde, aurreko zapatuan jokatu zuen bere Ligako lehen partidua 14 urtetik beherako taldeak, Txingudiren aurka partidua bikaina eginez.



Eibar-Depor bihar 18:30ean

Mendilibarren taldeak herenegun amaitu zuen Kopako ibilbidea eta orain Ligan zentratuko da. Zapatu honetan hasiko du bigarren itzulia, 18:30ean A Coruñaako Deportivo Ipuruan hartuta. Gaizka Garitanoren taldea atzetik dute eibartarrek, zazpi puntura; hala ere, Riazorren 2-1 galdu zuten.



AMAIA URKIA ARISTEGI

2017ko urtarrilaren 10ean hil zen,
88 urterekin

Familiaren izenean, **ESKERRIK ASKO**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.

Acua-Bike aktibitatea indartsu hasi da Kiroldegian

Abenduko ate irekien jardunaldiek izan zituzten erantzun arrakastatsua ikusita eta hor izan zirenen eskaerei jarraituta, Udal Kirol Patronatuak ordutegi eta egun gehiago ezarri ditu modalitate hori praktikatzeko eta, horrez gain, 16 urtetik gorakoentzat antolatutako Acua-Bike astero bi egunetan egiteko aukera zabaldu

du. Honakoak izango dira hemendik aurrerako egunak eta orduak: astelehen eta eguaztenez, 13:30ean eta 16:15ean; martitzen eta eguenetan, 10:15ean, 11:00etan eta 20:45ean; barixakuetan, 09:30ean; eta zapatuetan, 09:15ean.

Bestalde, eta otsailerako bakarrik, 2x1 sistema eskainiko zaie parte-hartzaileei: hau da, astean bi egunerako izena ematen dutenek bakarrik ordainduko dute eta, aldi berean, egun baterako izena ematen dutenek, bitan joan ahal izango dira hilabete horretan. Bi egunerako izena ematen dutenek, gainera, banda zabalera-ko tarifa izango dute: tokia ziurtatuta izango dute izena eman duten egunetan eta egun eta ordutegi desberdinetan joan ahal izango dira, beti ere aurretik Kiroldegiko atezaintzan eskatuta.



Katu Kalek igotzea du begipuntuan

Lehen itzulia amaituta, Eibarko saskibaloitzaileak ez du oraindik porrotik ezagutu. Horregatik du Iñaki Sanchez entrenatzaileak azken denboraldian galdutako maila berreskuratzeko itzaropena. Bigarrenari bi garaipen ateratzen dizkio taldeak eta, horri eusten badiote, 3. mailako beste multzoko lideraren aurka jokatu beharko dute igoeraren bila. Kanporaketa horretan lortzen ez badute, izango lukete oraindik bigarren aukera bat. Azken jardunaldian, Beasaingo Arri BKL gogoraren aurrean, 84-62 nagusitu ziren eibartarrak.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 3. etapa egingo dute otsailaren 4an

Otsaileko lehenengoa izango den etapa horrek Ispaster eta Gernika lotuko ditu. Handik bi astera, hilaren 16an, 4. etapa osatuko dute, Sukarrieta eta Bakioren artekoa.

Aurreko zapatuan, bestalde, Bizkaiko Biraren bigarren etapa egin zuten Ondarroa eta Ispasterren artean, "benetan arrakastatsua izan zen irteeran". Eibarko Klub Deportiboko Mendi batzordekoek autobusa betetzea lortu zuten: "55 lagun joan ginen, eserleku gabe laga genuen autobusa. Gainera, aurrepegi berri asko izan zen, proiektu berri honek animatuta".

Otsailaren 4ko txangoak 21 kilometro izango ditu eta bi mendi tontor gaingaituko dituzte: 726 metroko Illuntzar (Aulesti gainean) eta 537 metroko Arrola. Zapatu goizean 08:00etan irtingo dute autobus geltokitik

Hurrengo irteeretan parte hartzeko, betiko moduan, Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenetan, 19:30etik 20:30era.



Goiko irudian Ispasterren. Behekoan, Ondarroan. Periko Iriondo

Waterpoloko Euskal Herriko Kopako txapela irabazi dute Urbat 3Hko neskek

Denboraldi honetan debutatu eta lau hilabetera eskuratu du Urbat 3H waterpoloko nesken taldeak bere lehen txapela. As-teburuan jokatuako Kopako azken fasean eibartarrek 9-3 irabazi zieten CD Bilbaoko ordezkariak finalaurrekoan eta, behin finalean, pronostikoei aurre eginez UPNA9802 baina gehiago izan zen Eibarko taldea, 7-11ko emaitzarekin Euskal Herriko txapela bereganatzeko. Honakoek osatu dute taldea: Erika Santamaria, Garazi Perez de Mendiola, Iraide Sarria (kapitaina), Garazi Catalan, Ainhoa Agirre, Paula de Maria, Ixone Santamaria, Nerea Garcia, Zuriñe Lopez de Robles, Sara Leturiaga, Irati Martin, Jone Gomez, Aroa Peña, Maider Garrido, Judith Felipe eta Alaitz Ibarrola.

Mutilen taldeak ere papel bikaina egin zuen Kopa txapelketa



horretan. Urbat-Urkotronik finalerdietara iritsi bazen ere, hor amore eman behar izan zuen UPNA9802 taldearen aurrean (9-7), hori bai, denboraldiko partidua onenatarikoa jokatu eta gero.

Ezusteakoak izan ziren foball-zaletuaren bigarren itzuliaren hasieran

Liga txapelketako bigarren itzuliaren lehenengo jardunaldiak hainbat ezuste eskaini zituen: horrela, atzeko postuetan dagoen Ipur Sagardotegiak Durango gaur egungo txapeldunari irabazi zion, sailkapeneko behe aldean dagoen Bar Areto askoz aurrerago dagoen Alkidebari gailendu zitzaion eta, bestalde, Bar EzDok-ek bigarren porrotera eraman zuen Garajes Garcia liderra. Horri eskerrak Ligak bizitasuna hartu du, liderraren alde handia izaten jarraitzen badu ere: gaur egun zortzi puntu ateratzen dizkio Garajesek Bar EzDok taldeari. Behe-behean dagoena Slow-XOK da, garaipena zer den ezagutu gabe: partidu bakarra berdindu du eta beste guztiak galdu.

19 eibartar Elgoibarren

Eibarko Klub Deportiboak ordezkari zabalak izan zuen Elgoibarko Mugerza Krosean: guztira 19 atletek hartu zuten parte domeka goizeko probetan. Julen Teran juniorrak Euskadiko selekzioarekin hartu zuen parte eta 18. sailkatu zen. Seniorretan, Aitziber Urkiola 21. izan zen eta Txomin Osoro 77. Kadeteetan, Eneko Osorok 21. postuan amaitu zuen. Infantiletan, Gorka Kareaga (14.) eta Maddi Tejada (23.) izan zen lehen ordezkariak. Eta, albinetan, Unax Amorrosta (10.) eta Enara Magunazelaia (34.). Bihar Gipuzkoako kadete, jubenil eta junior txapelketak jokatu dira Donostiako belodromoan eta etzi Lasarteko Nazioarteko Krosa: bietan izango dira eibartarrak.



www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)

KOLORLAN
P I N T U R A K

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

f M Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



GORKA GANSO
(aktorea)

“Gai zailak landu behar direnean, hobe umorez egitea”

“Kaput” izeneko ikuskizuna taularatuko du gaur 20:30ean Gorka Gansok, Txefo Rodriguez lagun duela, Coliseoan. Orain dela pare bat hilabete estreinatu zuten Jimena Cavalletiren lan hau eta orain arte egindako agerraldiekin eta publikoaren harrerarekin *“oso pozik”* daudela diote. Kaput ez gain beste bi ikuskizun ditu Gansok bere Ganso & Cia konpainiarekin, hirurak ere hitzik gabekoak, eta Euskal Herrian aritzeaz gain, estatu mailan, Frantzian edota Hego Amerikan ere ibili dira. Sarrerak 5 euro balio du.

– Zeren inguruan dihardu Kaput?

Bi pertsonaiaren ihesaldi “geldia” kontatzen du. Ihesi doaz baina ez dira mugitzen, izan ere, kotxea hondatzen zaie bidearen erdian. Guda bat da ihesaren arrazoia baina beste guda bat dute aurrean eta baita beste batzuk alboetan ere. Halako egoera larrietan gizakion alderdi negatiboak azaleratzen dira eta lagunak izatetik etsaiak izatera pasatzen dira protagonistak. Hala ere, aurrera egiten dute eta berriz aurkitzen dute bizitzaren alde positiboa. Ikuskizun hau eguneroko hedabideetan ikusten dugun ezinezona islatzeko egin dugu. Pertsonen muturreko egoera hori eta honek guztiak duen larritasuna salatzen. Kaput du

izena, protagonisten bizitza, kotxea eta inguratzen dituzten gauza guztiak apurtuta edo apurtzeaz daudelako. Amildegi horren alboetan egotea gustatzen zaigu, pailazoak izanda egoera horrek jolasteko aukera ematen digulako.

– Eta zergatik halako gai serio bat umore klabean?

Umorea guretzat instrumentu edo erreminta bat da, nolabait, egoera negatiboengandik apur bat aldentzeko balio duena. Barrearen bitartez ikuslegoak halako gai serio eta kezkarri bat errazago onartzen du. Ikuspegi dramatikoago bat erabilita ikuslegoa aspertu edo nazkatu egin dezakegu, baina umorearekin gauzak gozago sartzen dira

begietatik. Gai zailak landu behar direnean, hobe umorez egitea.

– Hitzik ez egiteak zer dakar horrelako ikuskizunean?

Ikuskizun mutua den aldetik, keinuen bitartez komunikatzen gara. Askotan hitzek gauza asko esan ditzakete baina beste batzuetan gauzak ezkutatu ere egiten dituzte. Gorputzek bestalde, ez daukate hainbeste gaitasun gauzak ezkutatzeko eta komunikatzeko modu garbiagoa dute. Halako ikuskizunek atzerrira joateko aukera ere ematen digute eta komunikatzeko modua oso basikoa edo primitiboa denez, txoko guztietan eta adin desberdinetako jendeak ulertzen gaitu.

Danborrada txikia Coliseoan

Urteroko martxan, San Sebastianen omenezko emanaldi berezia hartu zuten Coliseo antzokiak aurreko asteburuan. Usartza txistulari taldearen, Molto Vivace boskotearen eta Eibarko Danborradaren ordezkaritza baten eskutik Eibarko zein beste herri batzuetako danborradetako pieza ezagunek bete zuten antzokia beste behin.



Musika Bandaren kontzertua

Urteko lehen kontzertua emango du domekan Eibarko Cielito Musika Bandak Coliseoan, 12:30ean, honako egitarauari jarraituta: “Viva el Rumbo” (pasodoblea, C. Zabala), “La rosa del azafran” (zarzuela, J. Guerrero), “Launakua” (bilduma, R. A. Santiago), “The phantom of the opera” (musikala, A. J. Webber) eta “En un mercado persa” (A.W. Ketelbey). Beste batzuetan bezala, ez badu euririk egiten, 11:15ean kalejira egingo dute herriko erdialdeko kaleetan zehar.



"20 urte", Portaleko aretoan

Aurreko barixakuaz geroztik "20 urte" erakusketa dago ikusgai Portaleko erakusketa aretoan. Bi hamarkada hauetan euren artelanak areto horretan erakutsi dituzten hainbat artistaren lanak biltzen dituen erakusketa otsailaren 19ra arte bisitatzeko aukera izango da, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.



Sendabelarren inguruan gustora

Horrelaxe jardun zuten martitzenean Mentxu Amunategik sendabelarren inguruan eman zuen ikastaroko parte-hartzaileek. Bermeotarrak ...eta kitto!-n eskaini duen bigarren saioan, gure inguruan hazten diren lore eta landareen ezaugarriak ikasi zituzten; oraingoan ere, praktikan jarri zuten ikasitako hori eta kalendularekin egindako ukendu bana eraman zuten etxera.

Ipurterre ipuin lehiaketa martxan

Gaur hasi eta martxoaren 13ra arteko epea izango dute Eibarko ikasleek Ipurterre Ipuin Lehiaketarako lanak aurkezteko. Lehiaketan LH eta DBHko ikasleek har dezakete parte, eta sarituek maiatzaren 17an Unibertsitate Laboralean egingo den ekitaldian jasoko dituzte sariak. Lehiaketan parte hartzeko oinarrien berri ikastetxeetan bertan izango dute ikasleek.

Play Back lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

Aratosteetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Play Back lehiaketan izena emateko epea gaur hasi eta otsailaren 17ra arte luzatuko da. Lehiaketan LHko 5. eta 6. mailako ikasleek har dezakete parte,



eta izena ikastetxeetan eman ahal izango dute. Taldeak, asko jota, seikoak izango dira eta partaideek kokoz jantzita joan beharko dute. Lehiaketa otsailaren 26an, domeka, izango da, arratsaldeko 17:00etan Untzaga-ko karpan.



Lagun Taldearen saioa

Aurten ere musika eta dantza ikuskizuna prestatu dute Lagun Taldekoek: "¡Se abre la sesión!" izenburuko lanaren ardatza epaiketa azkarrak izango dira. Lehen saioa bihar arratsaldean izango da, 17:30ean Hezkuntza Esparruan eta bigarrena, berri, hurrengo asteburuan, toki eta ordu berean. Sarrerak 2 euro balio du.

Zapatuko ipuina

Bihar ipuin kontalari saioa egingo da umeen liburutegian, 18:00etan, Zapatuko Ipuina programaren barruan. "Izenak izana"



izenburukoan Euskal Herriko mito, ipuin eta kondairetan oinarritutako ipuinak eskainiko ditu Eneko Haritzak. Sarrera doan izango da.

Gaztechef lehiaketa

Indianokua gaztelekuak Gaztechef lehiaketa antolatu du otsailak 11 eta 18rako eta martxoak 4rako, baina parte hartu nahi dutenek aurretik eman beharko dute izena (otsailaren 5erako), gaztelekuan. Parte hartzeko baldintzak eta bestelako argibideak ere han eskuratu daitezke.



Guraso eta hezitzaileentzat tailerra

Kenko Osasun Guneak guraso eta hezitzaileentzat bereziki pentsatutako tailerra antolatu du: "Disiplina Positiboko Tailer Intentsiboa" izenburukoa otsailak 4 eta 11n (zapatuan) izango da. Informazio gehiagorako eta izena emateko info@kenkogunea.com helbidera idatzi daiteke.



PEDRO ALBERDI

Toribio Etxebarria

Gure jaiotetxeak bi aldetara ematen zuten: aurretik, Calbeton zein Eibarko Txikitoria; atzetik, berriz, Txirio Kaleko 6 eta 8 zenbakiko peoren atzeko partera. Txirio Kalekoekin leihotik leihora hitz egiten genuen, hiruzpalau metro zabalerako erretena baikeuen tarteko. Hantxe jaio zen, -6an, hain justu-, 1.887ko apirillean, Toribio Etxebarria, politika-gizon eta idazlea, *Eibarko seme kuttuna*. Etxe biak ere, harena zein gurea, gerran San Andres parrokiaren inguruan zutik geratutako gutxietakoak ziren. Toribiok bere oroitzapen-liburuan, besteak beste, bere bi aititei buruz hitz egiten du, eta esaten du, aitaren partekoak, Francisco Etxebarriak, Txirio Kaleko etxea fundatu zuela; amaren partekoa, berriz, ez zela Eibarkoa, Errezilgoa baizik, eta haren abizenak *Ibarbia-Zinkunegi* zirela, segida horretan. Kontua da gure ama zena ere Errezilgoa zela eta haren abizenak *Zinkunegi-Ibarbia* zirela, segida horretan. Kasualitate horrek gure ama zenaren familia-zuhaitza arakatzera eraman nau. Bertan ikusi dudanez, gure amama Mariaren baserrian -Errezilgo *Mendiola-Goikon*, alegia- *Ibarbia* izan dute abizena, antzinatik. Duela bi mende, 1.830 urte inguruan, bertako maiorazgoak *Zinkunegi* abizeneko emakume batekin ezkondu eta *Ibarbia-Zinkunegi* senitartea osatu zuen. Nire ikerketaren arabera, haien seme nagusia, gure amama Mariaren aitita izango zen; eta beste seme bat, Esteban Ibarbia Zinkunegi, Toribioren aitita. Nork esango zien bi anaia gazte haiei, euren ondorengoek, zenbait gizaldi geroago, Eibarko zuloan, leihotik leihora egingo zutela ezaupidea? Gure amama Maria, bestalde, auzoko *Treku* baserriera ezkondu zen Bartolo Zinkunegi gure aititarekin. Eta bere bizi guztia Herniopeko mendialde hartan eman bazuen ere, gure jaiotetxean hil zen, Eibarko Fermin Calbeton 22an. Baina hori beste historia bat da.



Bilboko Korua eta Ganbera-orkestra zuzenean izango da otsailaren 3an

Datorren asteko barixakuan, 20:30ean, Bilboko Korua eta Ganbera-orkestra batera entzuteko aukera izango da Coliseoan, biek elkarrekin eskainiko duten emanaldian. 40 urteko ibilbidea bete duen abesbatzak ehundaka kontzertu eman ditu urte hauetan guztietan. Musika taldea abesbatzako (sopranoa, kontraltua, tenorea eta baxua) 20 kidek eta orkestrako partaide diren (biolina, biola, biolontxelo, kontrabajua, flauta, zeharkako flauta eta klarinetea) beste horrenbeste lagunek osatzen dute. Horiek guztiak gidatzeko arduraduna Hilario Extremiana da eta lan hori Gasteizko Udal Bandaren zuzendaritzarekin uztartzen du. Sarrerak 8 euro balio du.

Otsailaren 26an amaituko da "Eibar aldeko euskara hiztegia" argazki lehiaketa

Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan, "Eibar aldeko euskara hiztegia" argazki digital lehiaketa antolatu du. Antolatzaileek azaldu dutenez, "Eibar aldeko euskara hiztegi berba bat, edozein, ondoen irudikatzen duen argazkia hautatzeko lehiaketa da".

Parte hartu nahi duenak Eibar aldeko euskara hiztegi berba bat hautatu beharko du (www.eibarko-euskara.eus), eta hori ondoen irudikatzen duen argazkia atera. Argazkia originala izan behar da, norberak ateratakoa. Argazkiak formatu digitalan aurkeztu behar dira, posta elektronikoko hauetako batera bidalita: euskaltegia@eibar.eus, eibar@aek.eus edo euskara@eibar.eus. Argazkiak aurkezteko azken eguna otsailaren 26a izango da. Argibide guztiak www.eibar.eus gunean daude.



Kaixolia

Mendaroko Txokolate Fabrikara irteera



...eta kitto! Euskara Elkartek, Illunabarrian programaren barruan, Mendaroko Txokolate fabrika bertatik bertara ezagutzeko irteera antolatu du otsailaren 11rako, zapatua. Izena gaur hasita otsailaren 9ra arte eman daiteke, ...eta kitto! Ira deituta (943200918) edo emaila idatzita (elkartea@etakitto.eus). Asko jota 20 lagunentzako lekua egongo da, irteera goizez izango da eta doan. Irteeran parte hartuko dutenak trenez joango dira Mendaroraino, eta izena ematerakoan zehaztuko zaie ordutegia.



Herrixa Dantzan ELGETAN

Domekan 19:00etatik 20:30era Herrixa Dantzan dantzaldia hartuko du Elgetako Spaloia 13 kafe antzokiak. Gidatutako dantzaldia da, musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutakoa. Helburua, animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzea da. Elgetako Udalak ekimenari lagunduko dio aurten ere eta, iazkoaren bidetik, dantzara animatzen diren guztiak gidatzen Patxi Montero ibiliko da. Sarrera doan izango da.




Antzerkia BERRIZEN

Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia taldeen elkarlanetik sortutako "Francoren bilobari gutuna" antzezlana hartuko du zapatuan Berrizko kultur etxeak, 20:00etatik aurrera. Ximun Fuchs-ek zuzenduta, lanean parte hartzen dute, besteen artean, Ander Lipus eta Patricia Urrutiak.

Ibaiari buruzko erakusketa SORALUZEN

Urtarrilaren 31ra arte Deba ibaian jaso eta erregistratutako uraren soinuak eta ibaiari lotutako bestelako kontuak jasotzen dituen erakusketa ibiltaria ikusteko aukera izango da Soraluzen, kiroldegiko erakusketa gelan. Ibar Oihar izenekoa Gipuzkoako urak soinu bidez erregistratzeko egitasmoa da eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak garatu du, Cristina Enea Fundazioarekin eta AudioLab-ekin elkarlanean.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Alejandro Aranburu Irastorza. 89 urte. 2017-I-18.
- Severino Garcia Vilarchao. 88 urte. 2017-I-19.
- Josefa Astarloa Uriarte. 94 urte. 2017-I-19.
- Nieves Berasaluze Unamuno. 95 urte. 2017-I-20.
- Alicia Lekunberri Garrido. 84 urte. 2017-I-20.
- Mª Carmen Bouzas Guede. 71 urte. 2017-I-22.
- Josefina Torrontegi Ogara. 90 urte. 2017-I-23.
- Jose Luis Breña Perez. 61 urte. 2017-I-24.
- Juana Treviño Aierbe. 92 urte. 2017-I-25.
- Elisa Imaz Perez. 91 urte. 2017-I-25.

jaiotakoak

- Mohamed Amin Elazmani Ben Omar. 2017-I-17.
- Aiur Sarasketa Santos. 2017-I-18.
- Laia Pacheco Martin. 2017-I-21.
- Julen Jimenez Ezenarro. 2017-I-22.
- Julen Dieguez Martinez. 2017-I-23.

SUDOKUA

		2	8		6	4	
			4	6			
2						1	
6		4					3
	7				8		
8				9			5
	1						7
		3	7				
	8	3		2	5		

5	2	7	8	3	1	4	9	6
6	4	3	9	5	7	8	1	2
9	8	1	6	2	4	7	3	5
7	6	8	1	4	9	5	2	3
4	9	5	2	7	3	6	8	1
3	1	2	5	6	8	9	4	7
1	5	4	3	8	6	2	7	9
2	7	9	4	1	5	3	6	8
8	3	6	7	9	2	1	5	4

AURREKOAREN
EMAITZA

farmaziak

- Barixakua 27
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 28
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 29
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 30
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 31
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 1
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 2
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 3
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 27

HITZALDIA

19:00. "Gazteak Kalean".
Plataformari buruzkoa, auzipetutako batzuen eskutik. Musika eta pikoteoa. Eibarko Gaztetxean.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

ANTZERKIA

20:30. "Kaput" (Ganso Clown). 5 euro. Coliseoan.

Zapatua 28

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena Haur Parkea. Astelena frontoian.

EIBARTARRAK 25 URTE

11:15. Beteranoen arteko foball partidua: Eibartarrak-Eibar. Soraluzeko Ezozian.
13:30. Topaketa Ongi-Etorri tabernan. Ondoren kalejira, Ustekabe txarangarekin.
15:00. Bazkaria Ipur Sagardotegian.

TAILERRA

12:00. Garagardo tailerra. Eibarko Gaztetxean.

ATE IREKIAK

16:30. Ate irekien jardunaldia. San Andres ikastetxean.

LAGUN TALDEA

17:30. "Se abre la sesión" ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

UMEENTZAKO ZINEA

17:30. "Cazafantasmas". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Izenak izana" kontakizun saioa, Eneko Haritzaren eskutik. Doan. Umeen liburutegian.

Domeka 29

KONTZERTUA

12:30. Cielito Musika Bandarena. Coliseoan.

MUS TXAPELKETA

16:00. Euskal Herriko Mus Txapelketaren IX. edizioako kanporaketa. EHko Mus Federazioak antolatuta. Eibarko Klub Deportiboan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

Martitzena 31

IKASTEN

10:00. "Txernobyl" hitzaldia, Ander Izagirre kazetari eta idazlearen eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:00. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguaztena 1

IKASTEN

11:00. Kafe-tertulia: "Justicia, ¿privilegios solo para los poderosos?". Untzagako jubilatutuean.

ARRATEKO PLANA

18:00/20:00. Arrateko Plan Bereziari buruzko jardunaldi irekia, herritarrek parte hartzeko. Portalean.

HITZALDIA

18:30. Ondo Egindako Lana: Juanjo Alvarez. Armeria Eskolan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 2

ZINEA

10:00. "Nola?". Jatorrizko bertsoan (ingelesa) eta euskarazko azpiztituluekin. Portalean.

IKASTEN

11:00. Ikasten elkartearen urteko batzarra. Ondoren, bazkaria (Iruki sagardotegian). Portalean.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatutuean.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

ERABAKI BIOT

19:30/20:30. Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

28an: 19:45, 22:30
29an: 20:00
30ean: 20:30

"Belleza oculta"

Zuzendaria: David Frankel



(2 ARETOAN)

28an: 17:00, 19:45, 22:30
29an: 17:00, 20:00
30ean: 20:30

"Frantz"

Zuzendaria: François Ozon



(ANTZOKIAN)

28an: 17:00(1), 19:45, 22:30
29an: 17:00(1 aretoa), 20:00
30ean: 20:30

"La luz entre los océanos"

Zuzendaria: Derek Cianfrance




(ANTZOKIAN)

28an: 17:00 (gaztekeraz)
29an: 17:00 (EUSKERAZ)

"Ballerina"

Zuzendaria: Eric Summer



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Ongi etorri, URKO Oruesagasti Telleria, 31tik gure artian zagoz-eta. Patxuak lehengusu Edurne, Xabat eta Asierren partez.



Zorionak, JON, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa! Musu haundi bat gurasuen partez. Askok maite zaittugu!



Zorionak, IKER, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Noraren partez.



Zorionak, JOSU! Musu haundi bat famelixaren partez eta ondo pasa eguna lagunekin.



Zorionak, LANDER, txapeldun!!!, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa famelixa guztiaren partez!



Zorionak, ALBA, astelehenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.




Zorionak, ALAIN, hillaren 17xan 12 urte egin zenduaz-eta. Laztan haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ARRATE, hillaren 31n 10 urte beteko dozuzelako. Urte edarra izan dadilla zuretako. Maite zaittugu.



Zorionak, JUNE, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE, gure printzesak astelehenian bi urtetxo egingo dittu-eta. Millioi bat musu zure guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, PAULE (hillaren 12xan, sei urte) eta HAIZEA (gaur, zazpi). Musu haundi bat Garoa, Enara, Danel eta Xabaten partez, etxeko beste guztiokin batera.



Zorionak, JUNE, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Ondo pasa eguna eta musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GAIZKA, domekan 13 urte beteko dozuz-eta! Oso ondo pasa eguna, zure famelixaren partez.



Zorionak, MARIA, haraiñegun 17 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, XUHAR, atzo bi urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Eukenen partez.



Zorionak, ION, astelehenian urtiak bete zenduaz-eta. Musu eta besarkada haundi bana lagun guztien partez.



Zorionak, NAIA NILI, gure etxeko erregiñak astelehenian 11 urte egingo dittu-eta. Patxo pillua famelixaren partez.

Erakusketak

Urtarrilaren 31ra arte:

- JAVIER ORTIZEN argazkiak. (*Portalea tabernan*)
- PILAR PALACIOSEN argazkiak. (*Ei Ambigú-n*)
- LUIS EPELDAREN argazkiak. (*Klub Deportiboan*)

Otsailaren 7ra arte:

- PHOTOBAT BILBOKO ARGAZKI ELKARTEAREN erakusketa kolektiboa. (*Ei Corte Ingles-ean*)

Otsailaren 19ra arte:

- “20 URTE” erakusketa. (*Portalean*)

Otsailean:

- SANTOS TOURIÑOREN argazkiak. (*Portalea tabernan*)
- CARLOS ROMEROREN argazkiak. (*Ei Ambigú-n*)



Zorionak, ANDER!, domekan bederatzi urte beteko dozuz-eta. Patxo asko, eta baita gure etxeko printzesarendako. Maite zaittuegu!



Zorionak, HARITZ eta KOLDO, eta ongi etorri ALAIN gure mutiko barrixari. Aupa etxeko morroskuak!

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbara. Tel. 665-733954 eta 629-449646.
- Baserría salgai Bergarako Ubera auzoan. 15 hektareako terrenoarekin. Berriztuta eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 653-332125. Nerea..
- Baserría salgai Elgoibarko San Roke auzoan. Lur-sailarekin: 5,8 hektarea. Tel. 650-749722 eta 943-203284.

1.2. Errentan

- Eibarko gazte batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 665-705978.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 697-754174.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-252750.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. 2/3 logelekoa. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Autoak sartzeko pabilioia behar dut: 100 m² inguruko lokala. Tel. 671-846270. Ibon

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-506715.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-110716.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 642-650900.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.
- Gizonezkoa eskaintzen da lozezain jarduteko, mendian lan egiteko eta segurtasunean aritzeko. Tel. 666-655269.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-004773.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Interna. Tel. 655-776380.
- Emakumea eskaintzen da gaez edo asteburuetan lan egiteko. Orduka. Tel. 655-677035.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Erizaintzan lizentziatutako neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 604-164719.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsalde, gaez eta asburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-114801.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da sukaldari edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbitzaile moduan. Esperientzia. Tel. 630-534587. Arantza.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-221729.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-552986.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia-ekin. Tel. 631-979558.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 671-366568.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-793101.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 656-866255.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-780806.
- Neska eskaintzen da garbiketa-lanak egiteko eta dendari jarduteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-047826.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 632-384798.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-430110.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 695-180539.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-057185.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562461.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-247899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329868.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 632-426847.
- Mutila eskaintzen da peoi moduan, zain-tzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-649850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 659-908513.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-414397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko Eibarren edo inguruan. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-804895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-959575.

4.2. Langile bila

- Kamarera/oa behar da lanaldi osorako Eibarko taberna batean. eibarkafe@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Eibarko akademiak frantseseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum: irakasleeibarCV@gmail.com
- Alemanierazko irakaslea behar dut. Tel. 676-483118.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa Zikloak eta Selektibiterako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.
- Arkitektura ikasketak ditut eta Batxilergo Teknikoko eta DBH 3. eta 4. mailako klase partikularrak (Matematika, Fisika eta Kimika) emango nituzke. Tel. 679-843282.
- Marraketa Teknikoko klase partikularrak ematen dira. LH, Batxilergo eta Tekniko Mekanikoko maila guztiak. Tel. 675-713153.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

- Abenduan Eskularen Valmassoi markako betaurrekoak (irakurtzekoak) laga zituen bertatik pasa daiteke jasotzera. Tel. 943-204000.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Aurre matrikulak

Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Online aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

gozamena da
elkarrekin
Ikastea



Aurrematrikula:
urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era

Euskal Eskola
Publikoa

PERTSONA, HELBURU

ELSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

2017-2018 IKASTURTEA



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94
1, 2, 3 eta 4



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89
2, 3 eta 4



AMANA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com